

## IRAGARKIAK

### Obra, zerbitzu eta horniduren enkanteak eta lehiaketak

#### KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## 1271

*IRAGARKIA, esparru akordio bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetako langilegoari zuzendutako euskara-ikastaroak kontratatzeko dena (Espedientea: G18/232).*

1.– Erakunde esleitzaila: HABE.

a) Kontratua esleituko duen organoa: HABEren zuzendari nagusia.

b) Espedientea izapidetzen duen bulegoa: HABEko Kudeaketa Zerbitzua.

Helbidea: Vitoria-Gasteiz kalea 3, 6. solairuan, 20018 Donostia.

2.– Kontratuaren helburua.

a) Helburuaren deskribapena. HEOC-Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren araberrako euskara-ikastaroak ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetako langilez osatutako taldeei.

b) Loteak: ez.

c) Gauzatzeko lekua: esleipendunaren enpresaren egoitzan.

d) Gauzatzeko epea: 2018ko urriaren 1etik 2019ko irailaren 30era.

3.– Izapideak, prozedura eta esleipen-era.

a) Izapideak: ohikoak.

b) Prozedura: esparru akordioa.

c) Esleipen-era: esleitzeko hainbat irizpideri jarraituz:

– Formulak aplikatzearekin automatikoki balora daitezkeen irizpideak: 100 puntu.

Eskaintza ekonomikoa. Haztapena: 20 puntu.

Ikastaroak eman beharreko lekuan lizitatzailak ikasleei harrera egiteko gaitasuna. Haztapena: 80 puntu.

4.– Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua: zazpiehun eta berrogeita hamar mila euro (750.000 euro), BEZa salbuetsia.

5.– Bermeak.

Behin-behinekoa: ez.

Behin betikoa: esleipenaren zenbatekoaren % 5, BEZik gabe.

6.– Agiriak eta argibideak.

a) HABE. Vitoria-Gasteiz kalea 3, 6.a. 20018 Donostia.

Tel.: 943 02 26 00 – Fax: 943 02 26 01.

b) Informazioa eskatzeko azken eguna: 2018ko martxoaren 21a.

7.– Kontratistaren betebeharrak.

Sailkapena: ez da eskatzen.

8.– Eskaintzak noiz eta nola aurkeztu.

a) Azken eguna: 2018ko apirilaren 10a, eguerdiko 12:00etan.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: A eta B gutun-azala/gutun-azalak, administrazio-klausula zehatzen agirian dagokien puntuek adierazten duten edukiarekin.

c) Aurkezteko lekua: HABE. Vitoria-Gasteiz kalea 3, 6. pisua. 20018 Donostia.

d) Aldaerak: ez dira onartuko.

9.– Eskaintzak irekitzea.

«B» gutun-azalen irekiera.

Noiz: 2018ko apirilaren 18an, eguerdiko 12:00etan.

Non: HABEko kontratazio-mahaia. Vitoria-Gasteiz kalea 3, 6. pisua Donostia.

10.– Bestelako argibideak: ikus berariazko klausula administratiboen plegua.

11.– Iragarpen-gastuak: esleipendunaren kontura izango dira.

12.– Iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidali den eguna: ez.

13.– Deialdiari buruzko argibideak lortzeko edo pleguak eskuratzeko informatika-ataria edo web orria: [www.euskadi.eus/contratacion//www.contratacion.info](http://www.euskadi.eus/contratacion//www.contratacion.info)

Donostia, 2018ko martxoaren 2a.

HABEren zuzendari nagusia,  
JOKIN AZKUE ARRASTOA.